

IRUÑEKO ESKOLA BARATZEN III. TOPAKETA

Aurreratu genuen moduan, aurten, osasun egoera dela eta, Eskola Baratzen III Topaketa umila egin dugu, "petit comité" moldean. Topaketan ikastetxeetako ordezkari diren irakasleek parte hartu dute, programaren protagonista diren ikaslerik gabe.

Halaber, topaketa horretan, hiru ikasturte bete dira lau ikastetxek programan parte hartu zutenetik. Beraz, ospatzeko garaia da, egindako lanagatik eta osatutako zikloagatik. Uzta ona jaso ahal izan dugu egindako lanari esker. Zorionak!

Honako ikastetxe hauek hartu zuten parte:

- Amaiur Ikastola
- CEIP Doña Mayor
- CEIP García Galdeano
- CEIP Mendillorri

Halaber, parte hartu ez duten beste hiru ikastetxe gonbidatu ziren: Mendigoiti IP, Rochapea HLHIP eta Sanduzelai IP; azken bi horiek aurreko ikasturtean utzi zuten programa.



ESPERIENTZIAK PARTEKATUZ

Topaketari hasiera emateko, parte hartu duten ikastetxeek beren esperientziak partekatu dituzte. Horiek eskola-baratzeetan egiten ari den lana errazten dute.



PROGRAMAREN BALORAZIOA

Programan parte hartu dutenek programaren honako mugarri hauek baloratu dituzte:

1. Zer eramaten du ikastetxeak?



Ikasitakoak

- Landareak, haien ezaugarriak eta zaintza-lanak ezagutzea.
- Talde-lana, koordinazioa, bateratzea.
- Ingurumena zaindu beharra.
- Esperimentazioa, naturarekiko harremana.
- Naturaren garrantzia.
- Auzolana, talde-lana.
- Harremanak.
- Irakaskuntza partekatua.
- Bizitza praktikoa.
- Baratzeko egutegia, laboreak txandakatzea.
- Ikastetxearen hezkuntza-proiektua aberastea.
- Naturarekiko harremana.
- Zientifikoa: landareak neurtu eta haztea.
- Erantzukizuna eta zaintza-lana.
- Proiektuak ikastetxea bateratzen duenaren sentsazioa.
- Inguratzen gaituen espazioa zaintzearen garrantzia.
- Auzoaren ingurune naturala ezagutzea.
- Konturatzea ingurumenaren beharrez.
- Naturaren "arau propioak" ezagutzea.
- Proiektu bat denen artean zerotik eraikitzea.
- Natura eta ingurumena ikastetxera hurbiltzea.
- Gure ingurunea errespetatzea.
- Ikasleen ongizatea.
- Naturarekin harremanak izateko aukera.
- Eguneroko egoerei aurre egitea.





Emozioak

Gogobetetzea	Gozamena	Zoriontasuna
Poza	Adiskidetasuna	Ilusioa
Emozioa	Harremanak	Zaintza-lanak
Motibazioa	Desadostasunak	Ingurumen-kontzientzia
Jakin-mina	Erabakiak hartzea	Iraunkortasuna
Jarraitutasuna	Laguntza	Ziurgabetasuna
Nekea	Gogobetetzea	Ongizatea
Errespetua	Lasaitasuna	Talde-lana

Interesa, jakin-mina, maitasuna eta naturarekiko lotura
Etsipena (espero zenuena ateratzen ez denean)



Trebeziak

Pazientzia	Lankidetzeta
Landaketa	Jakituria
Negoiazioa	Kontzientzia soziala
Harremanak izatea	Talde-lana
Tresnak erabiltzea	Naturaren zikloak ezagutzea

Konturatzea landareek bizitza propioa dutela
Matematika, hizkuntza, irakurketa eta idazketa (baratzeko egunerokoak)
eta artea
Belaunaldien arteko lankidetzeta
Eskuzko tresnak: aitzurra, helikoidala, palak, ...
Haziak ernatzea
Baratzearen oinarrizko zaintza-lanak ikastea
Konpost-ontzi baten funtzionamendua ezagutzea
Urtaro bakoitzean zer ereiten den ezagutzea
Zomorro onak - zomorro txarrak





2. Zer sumatu duzue faltan?

- Irakasleen motibazio/ilusio handiagoa.
- Partaidetza motibatzeke eta sustatzeko neurriak
- Irakasle batzuk pixka bat gehiago engaiatzea, nola barne hartu irakasleak?, gehien bat goi-zikloetan.
- Irakasleen prestakuntza eta ezagutza.
- Programa hastean haren fase zehatzak zehaztea.
- Laguntza planifikazioan.
- Ereduak partekatzea.
- Irakasleak engaiatzea.
- Denbora.

Atal honetan identifikatutako bi beharrei erantzute aldera, honako proposamen hauek sortu dira datozen ikasturteetarako:

- **Bideo labur bat egitea esperientziak kontatuz, gehien bat pedagogikoki, irakasleak motibatzeke.**
- **“Prestatzaileen prestakuntza” egitea talde eragilearekin irakasle berriak prestatzeke.**

3. Ingurumen-sentsibilizazioan lagundu du?

- Bai, baratzeko lanak zein konposta biltzeak ingurumenarekiko kontzientzia garatu dute ikasleengan eta irakasleengan. Uste dut, jarduera horiei esker, ohitura berriak lortu ditugula eta gero eta gehiago jabetzen garela ingurumena zaindu beharraz, eta gutako askok hori gure egunerokotasunean praktikan jarri dugu.
- Noski!! Jakintzat ematen genituen milioika gauza birplantearazi dizkigu: sortzen dugun hondakin kopurua, nola berrerabil dezakegun, horietako batzuk berriz aprobetxa ditzakegun... Halaber, “nire eskuekin egin dezaket” ideiarekin kontzientzia sortu du.
- Bai. Jaiotzen den zerbaiten zaintza-lana nabarmenduko nuke: animalia txikiak, landareak,...
- Erabat. Ikasi dugu landareak eta beren prozesuak errespetatzen, eta hondakinak murrizten, berrerabiltzen eta birziklatzen lagundu dugu. Dena positiboa ingurumenerako.





- Bai, zalantzarik gabe. Oharkabeen izan arren, ikasleak barneratzen dituen ikaskuntzak dira, aztarna uzten duten horietakoak. Irakasleentzat ere garrantzitsua da jarduera horiek egitea, eta horien garrantziaz jabetzea.
- Asko eta asko, hondakinak gaika biltzearen gaiak eragin handia izan du ikasleengan, eta familiei helarazi diete. Baratzeko lanek natura maitatzen, errespetatzen eta zaintzen lagundu dute.

ETA, DATORREN IKASTURTETIK AURRERA?


Ingumen hezkuntzako lantaldearen proposamena aurkeztu da, ikastetxe berrientzako zein zikloa amaitu dutenentzako, eta proposamenari ekarpenak egin zaizkio.

1. Ikastetxe berrientzat

Modu positiboan baloratu dira ikasleendako lantegiak, baratzearen eguna ospatzea, eta zentroen arteko eta zentroan bertan egindako hiruhilekoko ebaluazio komunak.

2. Zikloa osatu dutenentzat

Proposamena modu positiboan baloratu da, eta iazko eta aurtengo ikasturteak apartekoak izan direnez pandemia dela-eta, proposatutako mugarri guztiak betetzeko konpromisoa hartzen duten ikastetxeei programan jarraitzeko aukera eman zaie.



Eskerrik asko guztiei zuen parte-hartze eta inplikazioagatik



Ayuntamiento de
Pamplona

Iruñeko
Udala